Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3173

AGINDUA, 2011ko maiatzaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, 2011ko deialdia egiten duena urriaren 7ko 171/2008 Dekretuaren babespeko laguntzetarako. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautu zituen (Erein programa).

Urriaren 7ko 171/2008 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautu ditu –Erein programa–. Hona dekretu horren xedea: Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko jarduerak eta inbertsioak finantzatzeko diru-laguntzak emateko araubidea bildu eta arautzea.

Dekretuaren 6.2 artikuluaren arabera, urtero, agindu batek honakook ezarriko ditu, besteak beste: laguntzetarako deialdia, laguntza-eskabideak aurkezteko epeak irekitzea, eskueran dagoen aurrekontukredituaren berri ematea eta lagundutako proiektuen iraupena finkatzea.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 49.5 artikuluak ezartzen duenez (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zen dekretu horren bidez), Euskal Autonomia Erkidegoaren ekonomia-ekitaldi bakoitzeko aurrekontu orokorrak indarrean jartzen direnean zehaztugabeko indarraldia eman zitzaien diru-laguntzen deialdia egingo da. Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legea onetsita dagoenez, deialdi hori egin beharra dago.

Horren indarrez, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helburua.

Agindu honen helburua da 2011ko ekitaldian EAEko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautzen dituen (Erein programa) urriaren 7ko 171/2008 Dekretuan aurreikusitako laguntzen deialdia egitea.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

3173

ORDEN de 10 de mayo de 2011, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se procede a la convocatoria de ayudas, para el ejercicio 2011, al amparo del Decreto 171/2008, de 7 de octubre, por el que se regulan las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa Erein).

El Decreto 171/2008, de 7 de octubre, por el que se regulan las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa Erein), tiene por objeto recoger y regular la concesión de ayudas económicas destinadas a la financiación de actividades e inversiones de promoción y desarrollo en las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El artículo 6.2 del Decreto establece que, anualmente, entre otros extremos, se efectuará la convocatoria de las ayudas, se abrirán los plazos de presentación de las solicitudes de ayuda, se dará publicidad al crédito presupuestario disponible y se determinará la duración de los proyectos objeto de ayuda.

El Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, establece en su artículo 49.5 que, una vez en vigor los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi de cada ejercicio económico, se procederá a realizar la convocatoria correspondiente de aquéllas normas de subvenciones que fueron en su momento reguladas con vigencia indefinida. Una vez aprobada la Ley 5/2010, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2011 se hace preciso, por tanto, proceder a dicha convocatoria.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Objeto.

Es objeto de la presente Orden convocar en el ejercicio 2011 las ayudas previstas en el Decreto 171/2008, de 7 de octubre, por el que se regulan las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa Erein).

Bigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

Urriaren 7ko 171/2008 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautu ditu (Erein programa). Bada, dekretu horrek arautu dituen laguntzetara biltzeko eskabideak aurkezteko epea, 2011ko ekitaldian, hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.– Aurkeztu beharreko eskabideak eta agiriak.

1.– Hemen deitutako laguntzetara biltzeko eskabideak, originala eta kopia bat, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Landa eta Itsasertzeko Garapeneko Zuzendaritzan aurkeztu behar dira, landa-garapeneko elkarteen bidez edo zuzenean bertara joanda. Nolanahi ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluak aurreikusitako bideetarik edozein erabili ahal izango da. Eskabideorriak honako web-orri honetan daude eskura: www.nasdap.ejgv.euskadi.net. Eredu horrekin bat etorriz, eskatzaileek hitza eman beharko dute ez direla erortzen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeko 50. artikuluaren paragrafo berrian ezarritako kasuetan (Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenaren indarrez sartuta).

2.– Aurkeztu beharrekoak dira eskabidearekin batera EAEko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautzen dituen (Erein programa) urriaren 7ko 171/2008 Dekretuaren 6.1 artikuluan aurreikusitako agiri guztiak.

Laugarrena.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdiaren guztizko zenbatekoak 6.200.000 euro jotzen du.

2.– Indarreko legerian ezarritakoaren arabera aurrekontu-aldaketarik gerta badaiteke ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautu dituen urriaren 7ko 171/2008 Dekretuko laguntzon xederako bideratu dituzten kredituek 5.400.000 euro jotzen dute, horietarik, 1.400.000 euro 2011rako ordainketa-kredituetarako dira, eta 4.000.000 euro 2012rako konpromiso-kredituetarako.

3.– LGENF funts komunitarioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Jasangarriko Plana 2007-2013ren babesean, aipatutako

Segundo.– Plazo de presentación de solicitudes.

En el ejercicio 2011, el plazo de presentación de solicitudes para acceder a la convocatoria de ayudas establecida por el Decreto 171/2008, de 7 de octubre, por el que se regulan las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, será de un mes a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Tercero.– Solicitudes y documentación a presentar.

1.– Las solicitudes para acogerse a las ayudas aquí convocadas se presentarán en original y copia, ante la Entidad Colaboradora o ante la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, bien directamente o a través de las Asociaciones de Desarrollo Rural. En todo caso se podrán utilizar cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Los impresos de solicitud se hallan disponibles en la página web www.nasdap.ejgv.euskadi.net. Conforme a dicho modelo, las personas solicitantes declaran bajo promesa, no encontrarse incursas en ninguna de las circunstancias recogidas en el nuevo párrafo del artículo 50 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco introducido por la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2.– A la solicitud deberá acompañarse toda la documentación prevista en el artículo 6.1 del Decreto 171/2008, de 7 de octubre, por el que se regulan las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa Erein).

Cuarto.– Recursos económicos.

1.– El importe total de la convocatoria asciende a la cantidad de 6.200.000 euros.

2.– Sin perjuicio de las variaciones presupuestarias que pudieran efectuarse conforme a la normativa vigente, los créditos presupuestarios con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi destinados al cumplimiento del objeto del Decreto 171/2008, de 7 de octubre, por el que se regulan las líneas de ayudas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ascienden a la cantidad de 5.400.000 euros, de los cuales 1.400.000 euros corresponden a crédito de pago para el año 2011 y 4.000.000 euros a crédito de compromiso para el año 2012.

3.– En lo que respecta al fondo comunitario Feader, al amparo del Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2007-2013, la cuantía concreta de los créditos desti-

Dekretuaren helburua bete dadin erabili beharreko kredituen zenbateko zehatza 800.000 eurokoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileak finkaturik dauden ordainketen bidez aplikatuko dituenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren landa-garapenerako programazioaren agiriko koadro finantzarioen birprogramaziotik etor litekeen finantzaketa gehigarriari kalterik egin gabe, Europako Batzordeak onetsitakoa. Landa eta Itsasertzeko Garapeneko zuzendariaren ebazpen batek emango du horren berri.

4.– Deialdi honen barruan Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kontura eman beharreko laguntzen kopuru osoak ez du esandako aurrekontu-kontsignazkoa gaindituko, ez eta –indarrean dagoen legeriak kreditu-loturari edo aurrekontu-aldaketari buruz aurreikusi duenaren arabera– aurrekontuetan ezarritako kopuru hori eguneratzearen ondorioz ezartzen den kopurua ere.

5.– Laguntza eskaera guztiei erantzuteko funts nahikorik ez izanez gero, laguntza jasoko dute neurri bakoitzaren barnean puntuaketa altuena lortzen dutenak, kreditua agortu arte. Hau gertatuz gero, gainontzeko eskaerak ezeztatuak izango lirateke arrazoi honengatik.

Bosgarrena.– Proiektuak gauzatzeko epea.

1.– Landa eta Itsasertzeko Garapeneko zuzendariaren ebazpen baten bidez onartuko da inbertsioak eta gastuak gauzatzeko gehieneko epea. Orokorrean, urteko proiektuetarako, 2011ko abenduaren 31 artekoa izango da epea, eta urte anitzeko proiektuetarako, 2012ko abenduaren 31 artekoa.

2.– Dena den, justifikaturiko arrazoirik bada, eta horretarako eskari arrazoi eta guztikoa aurkeztu ondoren, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariak luzapena eman dezake ebazpen baten bitartez, eta luzapen hori ez da bi urtekoa baino luzeagoa izango.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Aginduaren aurka aurkeztu daiteke, baita ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, dagoeneko aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

nados al cumplimiento del objeto del citado Decreto, será de 800.000 euros, que se aplicarán mediante los correspondientes pagos que realice el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco; y esto, sin perjuicio de la financiación adicional que pudiera resultar de la reprogramación de los cuadros financieros del documento de programación sobre desarrollo rural para la Comunidad Autónoma de Euskadi y que sean aprobadas por la Comisión Europea. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Director de Desarrollo Rural y Litoral.

4.– El volumen total de las ayudas a conceder dentro del presente ejercicio presupuestario de la Comunidad Autónoma de Euskadi, no superará la dotación global máxima destinada a su financiación en la presente convocatoria, o la que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente.

5.– En el caso de no alcanzar los fondos para atender a la totalidad de las solicitudes objeto de subvención, recibirán ayuda las que mayor puntuación obtengan dentro de cada medida, hasta el agotamiento del crédito, denegándose el resto de solicitudes por este motivo.

Quinto.– Plazo de ejecución de los proyectos.

1.– El plazo máximo de ejecución de las inversiones y gastos será aprobado mediante resolución del Director de Desarrollo Rural y Litoral. Con carácter general, para los proyectos anuales, el plazo máximo será hasta el 31 de diciembre de 2011 y, para los proyectos plurianuales, hasta el 31 de diciembre de 2012.

2.– Cuando medie causa justificada y previa solicitud motivada, por resolución del Director de Desarrollo Rural y Litoral se podrá conceder una prórroga para la ejecución del proyecto no superior a dos años.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el mismo diario oficial.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 10a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de mayo de 2011.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.